

**NUREMBERG • AEB**

James Vanderbilt (zuzendari y gidoilaria)

Vanderbilt: “Ikuspuntu psikiatrikoak erakarri ninduen, gaizkiaren izatea zein den aztertzea”

SERGIO BASURKO

*Nuremberge*gok bete-betean kokatzen gaitu duela laurogei urte Aliatuek erre-gimen naziaren porrotaren ondoren egindako epaiketetan. Douglas Kelley psikiatra estatubatuarra izendatu zuten preso nazien osasun mentala ebaluatzeko eta gerra-krimenengatik epaitu ote zitezkeen erabakitze-ko. Gauetik goizera, Kelley buruar-gitasun-borroka korapilatsu batean murgilduko da Hitlerren eskuineko eskuaren eta gizadiaren historiako gizonik beldurgarrienetako baten aurka: Hermann Göring.

Göring (Russell Crowe) eta Kelley (Rami Malek) pertsonaia nagusien arteko harremana ardatz hartuta, epaiketa prozesuaren barrunbeak, ongia- ren eta gaizkiaren arteko marra, eta batez ere, botere gosea lantzen ditu filmak. Jack El-Hairen “The Nazi and the Psychiatrist” liburuan oinarritu- tako filma da, eta James Vanderbilt zuzendari eta gidoilariak adierazi due- nez, “liburuaren lehen orriak irakurri ahala film batera eramateko istorioa zela iruditu zitzaidan. Jende askok ez baitzekien, ezta neuk ere, auzipetu



PABLO GÓMEZ

“Jende askok ez zekien, ezta neuk ere, auzipetu nazien osasun mentala aztertu zutela epaiketaren aurretik”

nazien osasun mentala aztertu zutela epaiketaren aurretik”. “Hori dela eta, ikuspuntu psikiatrikoak erakarri ninduen, gaizkiaren izatea zein den aztertzea. Hori erakustea erakargarria eta beharrezkoa iruditu zitzaidan”, gaineratu du.

Aktoreek egindako lana gorai- patu du Vanderbilt; guztiak biziki “inplikatu” zirela esan du eta adibide zehatzak eman ditu: Crowe Alema- niara joan zen lekua ezagutuz ho- beto ulertzeko asmoz, Malekekin orduak eta orduak igaro ditu esze- na bakoitza xehatzen. Eta Michael Shannonen antzezpenaren aurrean “txapela kentzen dut. Izan ere, Estatu Batuetako zinema munduan ‘akto- reen aktore’ deitzen baitzaio. Arrazoi

osoz, ziurta dezaket”, esan du bere aktore-zerrendari dion miresmena azpimarratuz.

Filmaketako eszena gogorrena, bestalde, kontzentrazio esparruetako irudiak epaitegian eman zituztenekoa dela aitortu du, irudi horiek publikoak badira ere, aktoreei eskatu zien ez zitzatela ikusi, eta lehenengo aldiz grabaketan bertan ikusi zituzten. Une gogoangarriak ere bizi izan zituen fil- maketan, besteak beste, Croweren eta Michael Shannonen arteko ho- geita bost minutuko elkarrizketarena. Inolako etenik gabe grabatu zituzten “gidoian zeuden hogeit hamar orrialdeak”, kontatu du, eta argitu du eszena ho- rrek indar berezia duela “benetako epaiketako transkripzioak direlako”.

Pelikulak erakusten du nola Göri- nek epaiketa bitartean erantzun ihes- kor eta korapilatsuak eman zizkien galdera zuzenei, eta gerra garaiko ekintza bakoitzerako aitzakia onar- garriak zituen. Esaterako, Himmler- ren kontrolpean zeuden kontzentra- zio-esparruetan gertatutakoaz ezer ez zekiela.

“Azkenean, erruduntzat jo zuten konspirazioagatik, bakearen aurkako krimenengatik, gerrako krimenengatik eta gizateriaren aurkako krimenenga- tik. 1946ko urriaren 1ean urkamen- dian hiltzera zigortu zuten. Apelazio bat aurkeztu zuen, soldadu gisa ti- ro egin ziezaioten eskatuz, kriminal arrunt bat bezala urkatu beharrean, baina auzitegiak uko egin zion. Exe- kuzioa baino ordu batzuk lehenago bere buruaz beste egin zuen zianu- rozko anpoila bat hartuta”, historiako eskola eman du Vanderbilt.

“Pelikula on batek galderak egiten dizkizu; pelikula txar batek, berriz, erantzun guztiak ematen ditu. Beraz, galderak egiten dituen filmak egitea gustatzen zait, eta beharbada eran- tzunik ematen ez dutenak”, haus- nartu du zuzendariak amaitzeko.

A powerful exploration of evil and justice

Director James Vanderbilt shared the intense thirteen-year journey behind *Nuremberg*, featured in the Official Selection. He revealed how Jack El-Hai’s book “The Nazi and the Psychiatrist” sparked his interest, saying, “It was the quickest I’ve said yes to anything.” The film follows Dr. Douglas Kelly, a U.S. Army psychiatrist evaluating Nazi war criminals, delving into the nature

of evil—a theme that Vanderbilt feels remains profoundly relevant today. He emphasised the collaboration of the four nations during the trials, united in their pursuit of justice despite Cold War tensions, quoting U.S. prosecutor Robert Jackson, “We need everybody.” The director also praised the complexity of the characters, particularly Rami Malek’s portrayal of Kelly,

and Hermann Göring, played by Russell Crowe. “Russell had a very specific energy with a seductive quality that was essential for Göring,” he explained, commending Malek’s obsessive approach to the role. The film’s emotional impact was felt during a scene showing real footage of Nazi concentration camps, which deeply moved the cast and crew. “We’re not recreating anything,” Vanderbilt

noted, as the actors watched the footage in real time. He also reflected on the script’s relevance today, citing that, even if written over a decade ago, it mirrors today’s political climate. Quoting David Fincher, he said, “Great films ask you questions, bad films give you all the answers.” For Vanderbilt, *Nuremberg* is about questioning ourselves, and what we are capable of.

La Perla**Donostia Zinemaldia**
Festival de San Sebastián
Colaborador**CENTRO DE TALASOTERAPIA, SALUD, BELLEZA, DEPORTE Y GASTRONOMÍA.**

Un edificio emblemático ubicado en la playa de La Concha. El lugar perfecto para reponerse después de las maratónicas sesiones de cine.

Paseo de La Concha - 943 458 856 | www.la-perla.net